

Erdi Aroko ibilbidea





Nahi al duzu denboran atzera bidaiatu?

Hartu autoa eta presta zaitez Uribe berezi-berezi bat ezagutzeko. Kultur ibilbide bat proposatzen dizugu, historiak bizi-bizi jarraitzen duen sei paraje paregabetan barrena: Erdi Aroaren esentziari eusten dioten defentsa-dorreak, jauntxoaren jauregiak eta gazteluak, Erdi Aroko bizimodua ulertzen lagunduko dizun istorio banarekin.

Ibilbidean, paisaia ikusgarriak, natura eta ondarea ikusi eta ezagutzeko geldialdiak proposatzen dizkizugu, paseatu, argazkiak atera eta inguruarekin harrituta gera zaitezten.

Esperientzia ezin hobea da Uribe eskualdeko leku lasaia goetan eta bisitari gutxiagorekin ibili nahi dutenentzat.





Egin klik hemen ibilbidearen GPS track-a deskargatzeko

Erdi Aroko ibilbidea



Plentzia

Butroe itsasadarren bokalean, Bizkaiko kostaldeko Erdi Aroko hiribudurik berezietako bat da Plentzia. Diego Lopez Harokoak, Bizkaiko Jaunak, 1299an sortu zuen, asmo estrategiko argia zuela: itsas trafikoa kontrolatzea, portu naturala babestea eta merkataritza Kantauri itsasoaren bitartez sustatzea. Gure ibilbideko 0. kilometroa herriko udaletxeko plazan hasten da.



Ba al zenekien.....

ITSASORA BEGIRAKO GARAIA IZAN ZELA?

Erdi Aroa elkartrukeen garaia izan zen, lehorretik ez ezik, Kantauri itsasoaren bitartez ere. Bizkaiko egur bikaina herrietako ontzioletara eramaten zuten, garai hartako ontzi tipikoak egiteko.

Nabigazioa, merkataritza eta balearen ehiza ziren, besteak beste, ekonomiaren oinarri; izan ere, balearen olio erabiltzen baitzen argia egiteko. Ontzi motei dagokienez, galera eta belaoztzia dira nagusi, lehena antzinako trirreme erromatarren oinordekoa, eta Kantauri itsasoaren indarrari aurre egiteko pentsatua bigarrena. Erdi Aroaren amaieran sortu zen karabela ezaguna, espedizio ozeaniko handien atariko.

Kartografia eta nabigazio-tresnak mende haietako itsas ingeniariaren adierazgarri dira.





Butroe gaztelua

Butroe familiak eraiki zuen dorretxea XV. mendean, Gatikako haranean, leinuen arteko borroketan lurraldea kontrolatzeko eta defendatzeko. Harrizko gotorlekua jauntxoaren bastioi eta tokiko boterearen sinbolo izan zen mende luzez.

Luzaroan abandonatuta egon ostean, XIX. mendean, Cubasko markesak gaztelua berreraiki zuen, estilo historizistari jarraikiz. Antzinako egiturari dorreak, almenak, leihate neogotikoak eta apaingarriak gehitu zizkion, Erdi Aroko gaztelu idealizatu bat irudikatzen asmoz. 1878. urte inguruan amaitu ziren eraberritze-lanak eta, ezaugarri neogotikoak eta neoerrenazentistak uztartuta, ipuinetako gazteluaren itxura du gaur egun, Euskadin mota horretako bakarra izanik.



Jakingarriak

ERDI AROKO JANZKERA

Gizakiaren bereizgarri nagusietako bat jantziak dira. Erdi Aroan, dotore egon nahi izate hutsagatik aldatzen zituzten arropak, eta askakizun handiak txertatu zituzten jantzi mota ugari, hala nola botoiak. Gerrako eta oherako jantziak ere ikus daitezke interpretazio-puntu honetan, eta arroparen eta moralaren artean antzinatik datorren liskar hori ere geratuko da agerian: emakume baten eskuko azala ukitzeagatik 15 soldatoko isuna.





Martiartu dorrea

Erandion, Udondo ibaiaren harana mendean duela, XIV. mendearen amaieratik XV. mendearen hasierara bitarte eraikitako dorretxea Martiartu leinuaren bizileku izan zen, familia horrek kontrolatzen baitzuen lurraldea Erdi Aroan.

Urteak joan, urteak etorri, erasoen ondorioz suntsituta geratu zen, esate baterako, 1472. urtean, baina berreraiki eta egokitu egin zuten, gotorleku izatetik nobleen bizileku izatera igaro zen eta, aurrerago, baserri, jatorrizko horma lodiei eta leiho jarlekudunei eutsita. XVII. mendeko San Antonio basilizarekin batera, Uribe eskualdeko Erdi Aroko historiaren lekuko garrantzitsua da.



Gehiago jakiteko

GERRA ETA BAKEA

Behe Erdi Aroan leinuen arteko gerrak izan ziren Bizkaian, eta leinuak bi bandotan biltzen ziren: Butroe etxeko "oinaztarrak", alde batetik, eta Muxika etxeko "ganboarrak", bestetik.

Gerra sozial horrek XV. mendera arte iraun zuen eta, zenbaitetan, hiribilduen eta leinuen arteko borrokaldi ankerrak ere izan ziren, "basurdea nork bota zuen" edo bestelako txikikeriaren batengatik; hori guztia deskribatzen da interpretazio-puntu honetan, baita Bizkaiko dorretxe eta gazteluekin zerikusia duen guztia ere.





Zamudiotorre

Arteaga auzoan, San Martin elizaren ondoan dagoen Erdi Aroko harrizko dorrea Zamudio leinuari loturik dago, Behe Erdi Aroan zuen boterearen sinbolo. Oinplano ia karratua du, eta horma lodiak, lau isurkiko teilatua eta defentsa-elementuak ditu bereizgarri, hala nola patin gotortua eta harrizko jarlekudun leihoak.

Gaur egun, solairu nagusian Erdi Aroko Ibilbideari buruzko maketa-erakusketa bat dago; guztiz gomendagarria! Horrela, bada, Euskal Herriko leinuen Erdi Aroko bizimodua eta defentsa-sistemak ezagutzeko ezinbesteko bisitaleku da dorrea.



Jakingarriak

ERDI AROKO ELIKADURA

Erljioa zen garai hartako eguneroko bizimoduaren ardatz nagusia, eta eragin handia zuen menuan ere. Garizuma, bijiliak, koipe gabeko asteazken, ostiral eta larunbatak... murrizketa horien guztien ondorioz, garai hartako bizkaitarren sormena sustatzen zen sukaldaritzaren arloan. Bestalde, ogia, esnea, arrautzak, haragia, arraina, lekaleak, barazkiak, espeziak, ardoa, garagardoa, ezti-ura... ere bazituzten, baina, jakina, modu desorekatuan banatuta nobleen, burgesen eta herritar xumeen artean; azken horien kasuan, eguneko elikaduraren % 70 ogia zen. Horixe da gure gastronomia ezagunaren abiapuntu.





Anguleri jauregia

Larrabetzun kokatzen da XVII. mendeko eraikina, eta 1777an berritu zuten, euskal baserriaren tradizioa jauntxoen bizilekuen ezaugarriekin uztartuta. Material-nahasketa nabarmentzen da —harria, adreilua eta harlangaitza—, baita fatxada ere, zutabe toscanarren galeria batekin eta horma-pintura apaingarriekin.

Atzealdean, eskailera bat dago solairu nagusira igotzeko, eta Meabe familiaren armarrria ikus daiteke bertan. Eraikin osagarri bat ere badu atxikia eta, horrekin, estilo arkitektoniko eklektikoa du jauregiak, baserriaren mundua eta aristokraziaren mundua ingurune natural batean uztartuta.

Bisitaldia osatzeko, Larrabetzu herrian barrena ibili eta Goikoelexaldeko San Emeterio eta San Zeledonio zin-elizara ingura daiteke, balio historiko eta sinboliko handiko gunea baita.



Jakingarriak

ERREGE-BIDEAK ETA BIDE SAKRATUAK

Donejakue Bideak badu, nola ez, ibilbide bat Bizkaian barrena, eta bizkaitarrek oso kontuan hartzen zuten Codex Calistinus edo Kalistoren Kodexa obran egiten den ohartarazpen zorrotza: "Antzina, jende askok Jainkoaren haserrearen jasan behar izan zuen pobreei eta Donejakueko erromesei harrera ez egiteagatik (...)". Donejakueren historiaren eta gorabeheren berri izan daiteke interpretazio-puntu honetan, Bizkaiko idiosinkrasia ulertzeko garrantzi handiko beste askorekin batera. Zin Bidea ere egin daiteke ibilbide honetan. Bide hori egiten zuten Gaztelako erregeek, Bizkaiko Jaun ziren aldetik, Bilbotik hasi, Goikoelexalden eta Gernikan barrena igaro eta Bermeon bukatu, eta bizkaitarrek zituzten pribilegio, usadio eta ohiturei eutsiko zietela zin egiten zuten.





Torrebillela

Mungiako Torrebillela dorretxea Erdi Arokoa da, XIV. mendekoa, eta Villelatarren leinuak eraiki zuen, defentsarako kokaleku estrategiko batean. Hasieran egurrezkoa zen, baina 1525. urtea baino lehen egin zuten harrizko, jatorrizko egiturari partzialki eutsita.

1852an erreforma sakona egin zuten; elementu neogotiko eta neoerrenazentistak ipini zizkioten, eta partzialki inguratzen duen jauregi bat gehitu. Abandonatuta egon ondoren, XX. mendean zaharberritu egin zuten eta, egun, Kultur Etxea da, euskal eklektizismo arkitektonikoaren adierazgarri izanik.



Jakingarriak

BIZKAIKO LURRALDE-ANTOLAKETA

Euskal baserri buruaski tipikoak parrokia-elizen inguruan egituratzen hasi ziren, eta horrek nolabaiteko komunitate-sentimendua sorrarazi zuen; denboraren poderioz, elizateak sortu ziren.

Beste populazio-eredu bat hiribildua izan zen: Bizkaiko Jaunak emandako foru bidez eratzen zen, merkatua egiteko eta defentsarako guneatzat.

Hiribildu zein elizateek badute ordezkaritza Bizkaiko Batzar Nagusietan; Batzar Nagusiak Erdi Aroko parlamentua direla esan dezakegu, lurralde hauetan tinko eta errotuta irauten duena.

Mendez mende, bi ereduak batera aurki zitezkeen zenbait lekutan, Mungian esaterako, non hiribildua eta elizatea bereizita egon ziren 1900. urtean bat egin zuten arte.



Erdi Aroko ibilbidea



Bisitatu Uribe

www.uribe.eu





EUSKADI
BASQUE COUNTRY

#EUSKADIBERRIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **Uribe**

www.uribe.eu